



UDALBILTZA

KONTSEILU NAGUSIA

UDALBILTZAKO PARTZUERGOAREN OHIKO KONTSEILU NAGUSIA. 2021ko APIRILAREN 1ean EGINDAKO BILERAREN AKTA

0. LABURPENA

1. Aurreko Kontseilu Nagusiaren aktaren onarpena
2. Lehendakariaren ebazpenak
3. Soldata igoera
4. 2022ko Udalbiltza Partzuergoaren aurrekontuen hasierako onarpena
5. 2022ko Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aurrekontuen hasierako onarpena
6. 2022ko aurrekontuak gauzatzeko arauaren hasierako onarpena
7. 2022ko lan egutegiaren onarpena
8. 2021. urteko memoria azalpena eta 2022. urterako Kudeaketa Plana eta bilakaera
9. EHkom
10. Galdera eta iradokizunak

Bilera Udalbiltzaren Oiartzungo liburutegiko bilera aretoan burutuz en, bi mila eta hogeitabiko apirilaren batean, arratsaldeko 17:00etan, bigarren deialdian eta parte hartu zuten azpian zerrendatuko diren udalerrietako ordezkariak.

	UDALA
1	Aizarnazabal
2	Alegia
3	Antzuola
4	Arakaldo
5	Araitz
6	Asteasu



7	Aulesti
8	Basaburua
9	Bera
10	Berastegi
11	Errigoiti
12	Hernani
13	Legorreta
14	Leitza
15	Muxika
16	Oiartzun
17	Oñati
18	Segura
19	Villabona

Ez zuten parte hartu udalerrri hauek: Aduna, Altzo, Amoroto, Ajangiz, Anoeta, Aramaio, Arantza, Arbizu, Areso Arratzu, Artea, Astigarraga, Ataun, Atxondo, Bakaiku, Barrundia, Berriatua Berrobi, Dima, Ea, Elduain, Etxalar, Etxarri Aranaz, Etxauri, Ezkio, Gatika, Getaria, Gaztelu, Goizueta, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Legutio, Lezo, Lizartza, Mañaria, Markina, Meñaka, Mendaro, Munitibar, Olazti, Ondarroa, Oñati, Orendain, Orexa, Otxandio, Uharte-Arakil, Urdiain, Usurbil, Zerain, Ziordia, Ziortza Bolibar, Zizurkil.

Jabier Asurmendi Udalbiltza Partzuergoaren lehendakari eta zuzendari jaunak zuzendu du bilkura.

Era berean, parte hartu du Gorka Ojangurenak Udalbiltza Partzuergoko idazkari kontu-hartzaile moduan.

Quoruma dagoela ziurtatzean, hasiera eman zaio bilerari, honako edukiak landuz:

LEHENA.- Aurreko aktaren onarpena

Jabier Asurmendi Lehendakariak egin du puntu honen azalpena.



Zuzenketa edo ekarpenik proposatu ez denez, aurreko Kontseilu Nagusiaren bilkuraren akta onetsi da aho batez.

BIGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman

Gorka Ojanguren idazkariak, azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik emandako ebazpenen laburpena jasotzen duen zerrenda emailez bidali zela gogorarazi du. Ondoren, gastuen onarpena ez diren gainerako ebazpenen esanguratsuenak azaldu ditu, hala nola:

- 55/2021 LE: Sortzaileei ordainketak: Geuretik sortuak proiektuko sortzaileei bekaren lehen ordainketaren bigaren zatia ordaindu zaie.

- 63/2021 LE: Goiener ekarpena: argi indarraren garestitzeak Goiener kooperatiba kapital handitze bat egitera behartu zuen. Udalbiltza Goiener-eko bazkide da eta 500 e ekarpena egin zuen.

- 71/2021 LE: Ipar Euskal Herriko Elkarteari transferentzia: 2021 urtean izan dugun 36.000 €ko soberakina, Ipar Euskal Herriko Elkartera transferitzen da 2022.urtean bertatik sor daitezkeen gastuak kubritu ahal izateko:

- 1) Ipar Euskal Herriko Teknikariaren soldata
- 2) Geuretik Sortuak proiektuaren baitan iparraldean sortu daitezkeen gastuak

- 08/2022 LE: Sortzaileei ordainketak: Geuretik sortuak proiektuko sortzaileei bekaren bigarren ordainketaren lehen zatia ordaindu zaie.

- 10/2022 LE: Aurrekontuaren luzapena: 2022.urterako aurrekontua onartu gabe dagoenez, 2021, aurrekontua luzatu da ordainketak egiten jarraitu ahal izateko.

- 11/2022 LE: EH kom kooperatibari ekarpena. Udalbiltza, sustatzaile eta bazkide laguntzaile den EH kom kooperatibari, 1.000€tako ekarpena egin zaio.



HIRUGARRENA.- Soldata igoeren onarpena

Partzuergoko Idazkaria den Gorka Ojanguren jaunak egin du puntu honen azalpena. Espainiar Estatuko Aurrekontu Orokorren legearen, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die. Bertan ezartzen da zerbitzu publikoan lan egiten duten langileen soldata igoera gehienez ere % 2koa izango dela, 2021ko abenduan indarrean zeudenekiko. Erreferentzia moduan, Eudel-en gai honen inguruko zirkular bat hartzen dira. Bertan, % 2ko soldata igoera proposatzen da sektore publikoko langileentzat.

Ondorioz, eta aurretik esandakoa kontutan hartuaz, % 2ko igoera proposatzen da, Udalbiltza Partzuergoko langileentzat.

Gaia bozketara jarrita, proposamena onartzen da aho batez.

LAUGARRENA.- 2022KO UDALBILTZA PARTZUERGOAREN AURREKONTUEN HASIERAKO ONARPENA

Jabier Asurmendi jaunak, Udalbiltza partzuergoko lehendakaria denak, egin du puntu honen azalpena.

SARRERAK

Aurten izango ditugun diru sarreretan, berrikuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen dugun diru laguntzan murrizketa bat izan da eta Berdintasun plana aurrera eramateko Emakunderen diru laguntza bat ere aurreikusi dugu.



377.500,00 € Partzuergokideen kuotak izango lirateke eta 32.000,00€ bestelako udalekin ditugun hitzarmen bidez lortuko lirateke. Azkenik, 238,528,00 € Geuretik Sortuak proiektua gauzatzeko udal desberdinekin egindako hitzarmenen bidez eskuratuko lirateke. Beraz, guztira aurrekontua, 687.657,88 €koa izango litzateke.

GASTUAK

1.KAPITULUA

Pertsonal gastuen artean , Idazkari kontu hartaratzaillearen jarduna, %50etik %60ra igotzea proposatzen da, gaur egun bere lan karga asko hazi delako eta lanpostua egonkortzea funtsezkoa dela uste delako. Bestalde, Berdintasun Plana egiteko diru laguntza emango baligukete, gastu hori aholkularitza enpresa kontratatzerara edo Berdintasun Teknikariaren gastuak kubritzera bideratuko litzateke.

Horrez gain, soldata igoera, % 2koa izango da.

Azpiegitura gastuetan, murrizketa bat egon da, arrazoi desberdinengatik: telefonoa aldatu da....

2. KAPITULUA

Komunikazioa: jaitsiera bat egon da hemen ere. Boletinen itzulpen gastuak dira batez ere (3.500 €)

PROIEKTUAK

- *Lurgida*: garapen teknologikoa eta itzulpenak. (6.000 €). Ez da espero aurten garapen handirik egotea. 2021ean gehiago gastatu da Gipuzkoako Foru Aldundiko diru laguntza jaso delako. Aurten ere jasoko bagenu, gehiago gastatuko genuke eta garapenen bat egingo genuke.

- *Geuretik Sortuak*: 351.000 €ko aurrekontua aurreikuspena dago Partzuergotik . Horretaz aparte, Euskal Herriko Elkarteak, 30.0000 € jarriko ditu herriko etxeek lpar



Euskal Herriko elkartearekin sinatuko dituztelako hitzarmenetatik. Guzti honetaz aparte, 71.000 € faltako lirateke. Finantziario hori lortzeko kreditu gaikuntza bat egin beharko da hurrengo Kontseilu Nagusian, Udalbiltzako soberakinaren kontura. Gaikuntza honen arrazoia ondorengoa da: oso proiektu konplexua da eta hasiera batean, 4 antzerki aurreikusita bazeuden ere, azkenean 5 izan dira eta honek emanaldien kopurua esponentzialki igo du, ia 180 emanalditara paseaz. Gainera, antzerki bakoitzak Teknika gastu batzuk ditu eta emanaldiak igotzean, gastu hauek ere handitu egin dira.

- Burujabetzak-aholkularitza: Aholkularitza+dietak+Hiritak At-ek proposatutako proiektuak (12.440 €)

- Saretzea: ez dago aurreikusita Batzar Orokorrik egitea

- Hurbiltzen: 4.000 € mantendu dira Sara-Ataun proiektua egiteko konpromisoa dagoelako.

- Ikerbiltza: momentuz proiektu hau bere horretan uztea erabaki da. Ikerketa guztiak amaituta daude

- Ekonomia Soziala: lehen Hauspotu zena. Partida 500 €koa da. Hemen etor daitezkeen gainontzeko gastuak fondotik egingo ditugu.

Energia: gida bat egiteko konpromisoa dago eta energia mahaitik atera daitezkeen proiektuak (12.100 €)

- Hartu eman: ingelesera eta frantsera itzultzea dauzkagun esperientziak (8.000 €)

- inkubagailua: hemen edukiko genuke EHkom+ Lapurditk datorren itsasontzien desegituraketa proiektua (10.100 €). Hemengo 1.000 € Kanpoko elkarteei ekarpena partidara pasatu behar da EH. Kom kooperatibaren bazkidetza ekarpena ordaintzeko.

Gainontzeko gastuak, ohikoak dira.

3. KAPITULUA: Finantza gastuak

4. KAPITULUA: Transferentziak



- *Beste transferentziak: urtero ematen ditugun diru laguntzak. Aurten korrikari emango diogu eta gainontzekoa etor daitekeen beste eragileentzat erreserbatzen dugu (Iparra – Hegoa...) (5.000 €)*

Antzuolako ordezkariak hitza hartzen du eta Gipuzkoako Foru aldundiko diru laguntzaren murrizketari buruz arrazoirik jaso den galdetzen du. Jabier Asurmendi jaunak aipatzen du jaso duten azalpen ofiziala, kanpo diru laguntzetan % 7ko jaitziera egon dela izan da. Azalpena harrigarri xamarra dela onartzen du, aurten , diru bilketa inoiz baino handiagoa izan delako.

Aurrekontua azalduta eta zalantzak argituta, bozkatzeari ekin zaio eta Udalbiltza partzuergoko 2022ko aurrekontua onartu da aho batez.

BOSGARRENA.- 2022KO EUSKAL GARAPEN ETA KOHESIO FONDOAREN AURREKONTUEN HASIERAKO ONARPENA.

Jabier Asurmendi lehendakari jaunak gogorarazten du fondo honetan urtero kopuru bat txertatzen dela tokiko garapen proiektuetarako. Aurten aurreikusitako kopurua, 12.000,00 €takoa da. Horietatik 500,00€ finantza gastuetan joaten da eta 11.500,00 € ekonomia sozial eraldatzaileetako proiektuetara bideratuko litzateke.

Bozketa egiten da, fondoari dagokion aurrekontua onartzeko eta aho batez onartzen da.

SEIGARRENA.- 2022KO AURREKONTUAK GAUZATZEKO ARAUAREN HASIERAKO ONARPENA.

Partzuergoko Idazkaria den Gorka Ojanguren jaunak egin du puntu honen azalpena. Partzuergoaren kasuan proposatzen den aurrekontua 687.657,88 eurokoa da eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren erakunde autonomoaren kasuan, 12.000,00 eurokoa.



Laburbilduz, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontua arautzen duen 21/2003 Foru Arauak entitatearen aurrekontuak garatzeko arau bat onartzera behartzen du partzuergoa. Hura azaltzeko, funtsean, Foru Arauaren transkripzio bat dela aipatu du Idazkariak, hura partzuergoaren egitura eta organoetara egokitzeko.

Bestalde, aurrekontu partidak muga eta lotura izaerakoak direla aipatu du idazkariak, ondorengo lotura-mailak zerrendatuz:

- Programa talde eta kontzeptua (mugatuenak): kapital zein gastu arruntetarako transferentzia eta diru-laguntzak, ondasun-inbertsioak eta finantza aktiboak.
- Programa talde eta kapitulua: ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak, finantza-gastuak eta finantza pasiboak.
- Kapitulua: langileen gastuak.

Gaia bozketara jarrita, aho batez onartu da 2022ko aurrekontuak gauzatzeko araua.

ZAZPIGARRENA.- 2022KO LAN EGUTEGIAREN ONARPENA.

Jabier Asurmendi jaunak, Udalbiltza partzuergoko lehendakaria denak, egin du puntu honen azalpena.

Udalbiltzan, normalean 3 egutegi onartzen dira, EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko eremu administatiboetarako.

Egutegia aurkeztu aurretik, partzuergoak onartzen ez dituen jai egunak aipatu ditu: Madriletik (konstituzio eta hispanitate eguna) eta Parisetik datozen jai egun estatalak, hain zuzen ere. Egun horien ordean, emakumearen eguna eta euskararen eguna jai egunak dira Udalbiltzan. Gorriz daudenak, aldiz, aste-bukaeretan dauden jai egunak dira. Beraz, lan egutegia horrela aurkeztu da:



Araba, Bizkaia, Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi, Naf B, Zuberoa
14 (9+ 1 Herrikoa + 1 Herrialdekoa + 3 Hautazko)	14 (9+ 1 Herrikoa + 1 Herrialdekoa + 3 Hautazko)	14 (7+ 1 Herrikoa + 6 Hautazko)
Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna	Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna	Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna
Urtarrilaren 6a: Errege Eguna	Urtarrilaren 6a: Errege Eguna	Martxoren 8a, Emakumearen eguna
Martxoren 8a, Emakumearen eguna	Martxoren 8a, Emakumearen eguna	Apirilaren 18a, Pazko Astelehena
Apirilaren 14a, Ostegun Santua	Apirilaren 14a, Ostegun Santua	Maiatzaren 1a, Langileen Eguna
Apirilaren 15a, Ostiral Santua	Apirilaren 15a, Ostiral Santua	Maiatzaren 13a, Igorkundea
Apirilaren 18a, Pazko Astelehena	Apirilaren 18a, Pazko Astelehena	Maiatzaren 22a, Mentekosteak
Maiatzaren 1a, Langileen Eguna	Maiatzaren 1a, Langileen Eguna	Maiatzaren 23, Mentekoste astelehena
Uztailaren 31, Loiolako Ignacio Donea	Abuztuaren 15a, Ama Birgina	Abuztuaren 15a, Ama Birgina
Abuztuaren 15a, Ama Birgina	Azaroaren 1a, Santu Guztien eguna	Azaroaren 1a, Santu Guztien eguna
Irailaren 6a. Elkano – Biraren V. mendea	Abenduaren 3a, Euskararen eguna	Abenduaren 3a, Euskararen eguna
Azaroaren 1a, Santu Guztien eguna	Abenduaren 8a, Sortzez Gabiaren eguna	Abenduaren 25a, Eguberri eguna
Abenduaren 3a, Euskararen eguna	Abenduaren 25a, Eguberri eguna	
Abenduaren 8a, Sortzez Gabiaren eguna	Abenduaren 26a, Eguberri biharamuna	
Abenduaren 25a, Eguberri eguna		

Laburbilduz horrela gelditzen da eremu bakoitzeko egutegia:

- EAE: 10 jai egun, 1 teknikari bakoitzaren herriko jai eguna, eta 3 hautazko jai egun.
- Nafarroa: 10 jai egun, 1 teknikariaren herriko jai eguna, eta 3 hautazko jai egun.
- Ipar EH: 7 jai egun, 1 teknikariaren herriko jai eguna, eta 6 hautazko jai egun.

Galdera edo ekarpenik egin ez denez, gaia bozketara jarri da. Bozka guztiak baiezkoak izan direnez, lan egutegia aho batez onartua gelditu da.

ZORTZIGARRENA.- 2021. URTEKO MEMORIA AZALPENA ETA 2022. URTERAKO KUDEAKETA PLANA ETA BILAKAERA

Jabier Asurmendi jaunak, Udalbiltza partzuergoko lehendakaria denak, egin du puntu honen azalpena.



ENERGIA MINTEGIAK

2021eko azaroaren 13an Energia Mintegiak antolatu zituen Partzuergoak, Hernaniko Orona Fundazioan. Orotara, Euskal Herri osotik iritsitako 81 lagun inguru elkartu ziren mintegietan. Bi mahai inguruz eta lau hitzaldiz osatutako hitzorduan, jarduera nagusiak Greziako esperientzia aztertu zuen, Electra Energy Renewables kooperatibaren eskutik. Greziako kontaktu hauei esker, nazioarte mailan harremank izaten hasi gara. Horrez gain, Energia komunitateak udaletatik nondik abiatu daitezkeen aztertu zen. 2022an helburua hurrengo urratsa ematea da gida bat osatuaz. Gida eskematikoa izango da eta oso grafikoa udalek eskura izan dezaten.

GEURETIK SORTUAK

Udalbiltzak artearen eta kulturaren alorrean sustatutako lehendabiziko proiektua da Geuretik Sortuak. 2020. urteko abenduan aurkeztu zen, eta bere hedapenik handiena 2021 eta 2022 urteetan izango du. Proiektu honen helburuak dira, alde batetik, euskarazko kultura eskaintza zein hedapena areagotzea eta, bestetik, Euskal Herriko udalerrietatik Euskal Herriko kontakizuna egitea. 39 udalerritara iristea lortu da proiektu honekin, batzuk bakarka parte hartu dute eta beste udal batzuk elkarren artean bat eginik.

Proiektu honekin bi helburu nagusi lortu nahi izan dira:

1. Alde batetik harri bakoitzaren kontakizuna beste herrialde batetik datorren artistaren ikuspuntutik kontatzea.
2. Bestetik, eskarmentu handiko sortzaileei eta hasi berriak direnei bere eskualdetik ateratzen laguntzea bere ortzimuga zabalduz.

Proiektu honetatik 16 eleberri motz jaio dira liburu batean bildurik. Bestetik 5 film labur ekoiztu dira film batean elkartutik eta 5 antzerki obra sortu dira. Jarraian, Jabier Asurmendi jaunak sorkuntza lan hauek banan bana aurkezten ditu.



2022.urteari begira, hautatutako udalerrietan, filmaren eta liburuaren aurkezpenak eta antzerki emanaldiak egingo dira. Proiektu honen jarraipena komunikatiboki, Hamaika Telebistaren bidez gauzatzen ari da.

Hurrengo edizioari begira, arriskua, datorren urtean udal hauteskundeak direla da eta baliteke proiektuan sartzen den udaletako batean gobernu aldaketa egotea. Hitzarmenetan onartzen den konpromisoa bi urtetarako izaten da eta espero da arazo handirik ez sortzea.

Asmoa, beka deialdia, ahalik eta azkarren ateratzea litzateke, sortzaileek datorren urtean aukera hau egongo dela jakin dezaten eta prestaketa lanetarako eta aurkezpenetarako denbora gehiago izan dezaten. Horrela, aurkezten diren lan horiek, Geuretik Sortuak-en planteamenduetarekin lotura handiago izatea lortu nahi da. Aurreko edizioan, sortzaileek, esku artean zeuzkaten lanak aurkeztu zituzten eta ez bereziki Geuretik Sortuak-era egokituta zeudenak.

Horretarako, lehen pausoa, partzuergokide diren udalei, gutun bat bidaltzea litzateke, GSen bigarren edizio bat egiteko asmoa dagoela esanez eta parte hartzeko nortzuk dauden prest jakiteko aukera izan dezagun. Beraz, hurrengo pausoak ondorengoak izango lirateke:

1. Aurrekontua prestatu
2. Parte hartuko duten udalen zerrenda osatu
3. Beka deialdiaren oinarriak prestatu, argitaratu eta esleitu

HARTU-EMAN: ESPERIENTZIEN BANKUA

Udal, eragile eta herri ekimen ezberdinetatik sortzen eta saretzen diren ekimenak beste batzuei helaraztea eta transportagarriak izatea da egitasmo honen helburua.

- 2002.urterako dauzkagun helburuak honakoak lirateke:
- Nazioarteko esperientziak jaso.



- Txertatu ditugun lan ildo berriak indartu: hezkuntza, Teknologi burujabetza eta jatorri aniztasuna.
- Ingelesera itzulpena egin nazioartean zabalkundea egiteko.

HAUSPOTU

Tokiko garapen proiektuek osatzen dute. 2020 an abiatu zen . Gaindegiaarekin azterketa bat egin zen, despopulazioa, zerbitzuen irisgarritasun eza eta langabezia tasa aztertuta. Hortik ondorio batzuk atera ziren eta hitzarmenak sinatu ziren koop 57rekin finantziatorako eta Olatu Koop-ekin bide laguntzarako. Helburua, ekonomia sozial eta eraldatzaileko proiektuak martxan jartzea izan zen autoenplegua sortu eta faltan botatzen zituzten zerbitzuak martxan jartzeko.

Bi eskualdetan 5 lan-saio eskaini dira, 2021eko uztaila eta abendua bitartean. Formazio saioekin Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritzen diren proiektuak sustatzeko lanabesak eskaini ziren, eskualdeko ekosistema komunitarioa indartzeko helburuarekin. Eremu bakoitzean lan ildo ezberdinak jorratu ziren, beti ere ikuspegi komunitarioa oinarrian duten proiektuak garatzeko xedearekin. Prozesuan eskualdeko hautetsiek, eragileek eta norbanakoek hartu dute parte.

Aurrera begira, proposatzen dena da Hauspotu proiektua aparkatzea eta ekonomia sozial eraldatzaileko lan ildoan lan egitea proiektuak garatuz interesa agertzen duten udalerriekin.

Aurrera begira daukagun beste proiektu bat da Euskoaren Garapenarekin Bateragarria Den Mugaz Gaindiko Barter Sistema baten egingarritasunari Buruzko Ikerketa-Proiektuaren sustapena. Ezaugarri hauek ditu:

- Enpresen arteko kreditu sistema edo moneta zirkuito zirkularra da, elkartrukean oinarrituta.
- Enpresa txiki eta ertainentzako elkartrukeari dagokionez (“retail barter”), bi adibidek nazioartean ospea hartu dute: WIR Suitzan (Vallet, 2015) eta Sardex Sardeñan (Bazzani, 2020).



- Hego eta Ipar EHko Unibertsitateko kidek eta eragilek parte hartzen dute

HURBILTZEN

2021 urtean, lau Uharteak proiektua garatu da: Lau udalerrriak lotzen dituen ibilbidea da eta gida-liburua osatu da, eta aurtengo udaberrian aurkeztuko da. Oinez egiteko ibilbidea da.

2022 urteari begira Sara Ataun proiektua daukagu esku artean. Aspalditik dator bi herrien arteko harreman a sendotzeko asmoa. 2021 urtean zehar forma eman zaio asmoari eta 2022.urtean burutuko da. Asmoa urte bakoitzean herri bakoitzean merkatu bat egitea da eta baita ere herri bakoitzeko eskolekin harremanak sendotzea.

2022 urteari begira bata ere Araitz eta Hergarai bailaren arteko senidetzea ere landuko dugu dituzten problematika komunei irtenbide komunean pentsatuz. Horrela, haran bakoitzak besteko ordezkariak gonbidatuko ditu egun berezietan. Eta batzar gehiago zehaztuko dira bi bailaren arteko ezagutzan sakontzeko.

IKERBILTZA

Dagoeneko sei ikasturte igaro dira programa hau abiatu zenetik, eta bitarte honetan, Euskal Herriko unibertsitateetako hainbat ikaslek zenbait udaletan egin dituzte euren gradu amaierako proiektuak, udal horiek izan ditzaketen behar edo erronka ezberdinen inguruan euren lanak gauzatu. Iragan ikasturtean, adibidez, hiru esparrutan gauzatu zituzten lanketak: Elikadura Burujabetza, Gizarte Ekonomia eta Energia Burujabetza.

2021ean zehar, ikerketaren bigarren fasea garatu zuen Partzuegoak, Aztiker Soziologia Ikerlaguarekin batera. Lanketak Euskal Herriko hainbat eragile eta eskualdeen artean



kohesioaren bidean sortzen diren baloreak identifikatzea izan zuen helburu, bertan inplikaturako norbanakoen bizitzetan duten garrantzia ulertzeko eta haiekiko atxikimendua euren iruditerian nola eraikitzen den aztertzeko xedearekin.

Ikerketa hauek amaituta, egindako lana gure lanean ikusgai dago eta momentuz ber horretan geldituko da. Aurrerantzean ikerketaren bat egin behar bada, unibertsitatearekin batera egingo da eta oso proiektu zehatzetara bidearatuta.

LURGIDA

Dakizuen moduan, Euskal Herri osoa aintzat hartuko duen euskarri turistikoa da Lurgida.

Aplikazioak balorazio onak ditu eta bisita eta erabiltzaile ugari ditu

2021 urtean zehar hobekuntza desberdinak egin dira, “zer egin” atala gehituz eta bilaketa iragazkietan hobekuntza desberdinak txertatuaz. Horrez gain, edukiari dagokionez, hiru ibilbide berri garatu dira: Enaren ibilbidea, Kontrabandisten ibilbidea eta Mitologiaren ibilbidea. Ondare immateriala ere areagotu da eta 70 herri berri sartu dira gidan.

2022 urteari begira ondorengo helburuak izango genituzke:

1. Herrietako “zer egin” atala herri gehiagotan garatzea, herriek bidaltzen duten informazioarekin.
2. Ibilbideak berriak txertatzea:
 - Meategien ibilbidea
 - Arte eskolen ibilbidea
 - Kobazuloen ibilbidea
3. 48 herri berri sartu
4. Etxaldeak gehitu
5. Ipar EHko hiri elkargoarekin lankidetzatza



EH KOM PROIEKTUA

Proiektua ezaguna da. Euskal Herriko sare libre eta komunitarioak sortzeko eratu da. 2021. urtean zehar, eman diren pausoak ondorengoak izan dira:

1. Oztopo juridiko eta tekniko guztiak identifikatu
2. Planteamendua garatu oztopo horiei aurre egiteko
3. Arduradun egokia bilatu
4. Aditu, idazkari kontu hartzaile eta aditu desberdinekin proiekturen diseinua egin

Proiektu honi buruzko informazioa partzuergokide desberdinei bidali zaie eta ezaguna da. Dena den, informazio gehiago nahi izanez gero, udalbiltzarekin harremanetan jartzeko deia egiten du Jabier Asurmendi jaunak.

2022 urteari begira hauek lirateke helburu nagusiak:

1. Batzarrak udalekin eta eragile ezberdinekin proiektua pribatuan aurkezteko
2. Kooperatibaren eraketa
3. Irudi grafikoaren diseinua, sare sozialak eta webgunea
4. Aurkezpen publikoa egin
5. Lehehengo proiektuak garatzen hasi

HARREMANAK: ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA ERAGILEAK

Aurten ere, Udalbiltza Partzuergoak Euskal Herriko erakunde publiko ezberdinekin harreman instituzionalak izan ditu. Izan ere, aurreko urteetako joerari jarraituta, hainbat lan bilera egin ditu.

Hona hemen Udalbiltza Partzuergoak 2021ean Euskal Herriko erakunde publiko nagusienekin egindako batzarrak: Nafarroako Gobernua, Euskarabidea, Euskal




Hirigune Elkargoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Euroeskualdea. Nagusiki, Geuretik Sortuak proiektuari begira finantziazioa lortzeko egon dira batzar hauek.

Eragileei dagokionez, 2021ean bi elkarlan hitzarmen sinatu ditu Udalbiltzak honako eragileekin:


- Ikergazte 2021 sari banaketa
- Oinherrik Baztanen antolatutako jardunaldiak lagundu ditu

Horretaz aparte, Udalbiltza Partzuergoaren ordezkariak, 2021. urtean zehar, eragile ezberdinek antolatutako hainbat ekimenetan parte hartu du eta Euskal Herriko hainbat eragilerekin bildu da urtean zehar.

Jarraian, Jabi Asurmedi jaunak, 2022. urteari begira, Kudeaketa Planaren barruan pentsatuta dagoen eskema nagusia eta eraldaketa plana azaltzen du. Eskema ondorengo litzateke:



Guzti hau gauzatzeko planteatzen den organigrama ondorengo litzateke



Burujabetzei dagokionez, lan ildo nagusiak ondorengoak lirateke:

- Euskal Herriko udalerrietan udalgintza proiektu eraldatzaileak garatzeak edota garatzen laguntzeak eskatuko du jakintza berriak edo tresna berriak eta eraldatzaileak implementatzea
- Udal antolamenduaren ezagutza sakona formularik egokiena aztertzeko gai izateko eta planteamendu bat proposatzeko.
- Arlo ezberdinetako eragile eta aditu sare bat josi, Udalbiltzarekin batera, udalerriei aholkularitza tekniko-juridiko-politikoa emateko

Eskema honetan Teknikari eta Batzorde Eragileko kideak egongo lirateke:

- Eremu administratibo bakoitzeko teknikari bat.
- Teknikari bakoitzak lan ildo ezberdinen inguruko ardura teknikoa dauka
- Ezagutu beharko dituzte beren lan ildoetan egiten dena eta dauden eragileak eta haiekin harremana mantendu.



- Adituak, kanpoko inteligentziak izango dira
- Lan ildo bakoitzeko, arduradun teknikoaz gainera, arduradun politiko bat ere badauka, Batzorde Eragileko kide bat.
- Eremuetako teknikariek egingo dituzte bisitak maiz partzuergokideak diren beren udalerrietan, haien proiektu eraldatzaileak ezagutzeko, laguntzeko, batez ere, legegintzaldiaren hasieran, baina baita gainontzeko urteetan ere.
- Balizko partzuergokideei ere bisitak egin.
- Norgintzako proiektuetan, teknikari espezializatuak egon daitezke, adibidez, kultura teknikaria

Amaitzeko Jabier Asurmendi jaunak aurrera begira Udalbiltzan, planteatzen diren lan ildoak eta lan ildo transbertsalak aipatzen ditu:

Lan ildoak

- Ekonomia lokala eta Ekonomia soziala
- Energia burujabetza eta deskarbonizazioa
- Teknologia burujabetza
- Elikadura burujabetza eta tokiko elikadura
- Natur baliabideak
- Hiri hondakinak
- Etxebizitza eta hirigintza
- Aberastasunaren birbanaketa
- Zaintza
- Artea eta kultura
- Kultur eta jatorri aniztasuna
- Euskara
- Hezkuntza
- Memoria historikoa eta bizikidetzatza



Lan ildo transbertsalak

- Zaintza
- Feminismoa
- Parte hartzea / gobernantza komunitarioa
- Udal antolamendua

Azalpen guztia amaitu ondoren, 2022. urterako Kudeaketa Planaren onarpenaren bozkaketa egiten da eta aho batez onartzen da.

BEDERATZIGARRENA.- EH kom

Jabier Asurmendi jaunak aipatzen du aurrez proiektua azaldu duela. Aurkezpen publikoa, apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran izango da. Bazkideztaren ekarpenari dagokionez, aurrez Batzorde Eragilean onartu bazen ere, Kontseilu Nagusiak, organu goren moduan, Bazkideztaren kuotaren onarpena egitea komenigarria dela aipatzen du. Bazkideztaren kuota hau 1.000 €takoa izango litzateke.

Azalpenen ondoren, bazkideztza onartzeko bozketa egiten da, eta aho batez onartzen da.

HAMARGARRENA.- Galderak eta Iradokizunak

Antzuolako ordezkariak hitza hartzen du eta aipatzen du Antzuola eta Aiherra herrien arteko senidetza baten, ibilbide bat garatu dutela eta aurten aurkeztuko dutela. "Mugak Zubi" dauka izena ibilbideak eta 37 urteko senidetze baten barruan kokatua dago nazio ikuspegi baten baitan. Ibilbidea, oinezkoentzat eta bizikletan egiteko modukoa izango da eta bere webgune eta aurrekontu propioa izango du. Hau kontuan hartuta, Udalbiltzako Teknikari batekin harremanetan jartzeko aukera egoki ikusten da, ibilbide hau bera ere Lurgida aplikazioan azaldu eta zabaldu dadin besteren artean.



Honen ondoren, eta deialdi honen helburua bete delarik, Lehendakariak batzarraldia amaitutzat ematen du, arratsaldeko zazpiak hogei gutxi direnean, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

UDALBILTZA PARTZUERGOKO IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA